

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
3 positibo berri	1.613 hildako EAEn	4 positibo berri	528 hildako
2.315 positibo guztira*	6 UCIn EAEn	5.464 positibo guztira	1 UCIn
*Hernanin 66 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 4.316 ;Naf: 9.457	

## Aranoko Santio festak, bertan behera gelditu dira

Aurten gertatu den pandemiak bultzatuta, Aranon ospatzen diren Santio festak bertan behera uztea erabaki du Jalki kultur elkarteak eta Aranoko Udalak, «aurten ez dira festak ospatuko, ez behinik behin betiko eran».

### ARANO SANTIO FESTAK

COVID-19aren pandemiak, bultzatu du bazter guztietako festak bertan behera uztea, eta Aranon ere hala gertatu da, «ez dago esan beharrik, aurten COVID-19aren kontu honek, dena hankaz gorajarri duela, eta Aranoko festak ez dira salbuespena». Hori horrela, Jalki kultur elkarteak, Aranoko Udalak eta festa batzordeak, Santio Jaiak bertan behera uzteko erabakia hartu dute.

Jalki kultur elkarteak eta Aranoko Udalak azaldu dute,

jende elkarketa haundiek ez dutela mesede egiten, eta arrazoi hori tarteko, ezin izango direla Santioak ospatu. «Aurten ezingo dugu arkume jatea egin, feriarik ez dugu izango...».

Jakinarazi dute, data gerturatu ahala, herri ekimenez bultzatutako jarduerak aurrera egingo duten edo ez ikusteko dagoela. Hala ere, «espontaneo-ki ekintzaren bat sortuko balitz, arduraz jokatzeari» eskatu du Udalak. Gaineratu du, «ea guztion artean bere onera ekartzen dugun guztia!». **K**



Ez da txupinazorik izango aurtengoan, eta ekintzen bat sortzen bada, «arduraz jokatzeari» eskatu du Aranoko Udalak.

## Udako programazioari hasiera emateko asmotan, zinema emanaldiak eskainiko dira aire librean

Etzi eta larunbatean, zineaz gozatzeko aukera egongo da Atsegindegin. Bi pelikulak gaueko 22:00etan eskainiko dira, eta ekitaldiak doakoak izan arren, alde zuzenetik gonbidapena eskuratu behar da Biterin.

### HERNANI ZINEA

Hainbat ekitaldi bertan behera gelditu dira Covid-19aren eraginez, hala ere, ez da horrela gertatu Hernaniko udako programazioarekin. Izan ere, uztailean eta abuztuan zenbait ekitaldi antolatu ditu Hernaniko Udalak, segurtasun eta babes neurri guztiak kontuan izanik. Ekitaldi hauen berri, aurrerago zabalduko dutela jakinarazi du Udalak.

Udako programazio honi hasiera emateko, etzi eta larunba-

tean, bi zine ekitaldi antolatu dira, eta hauek kalean izango direla azaldu dute. Etzi, *Leo da Vinci*, *Monalisa misioa* eskainiko da, eta larunbatean berriz, *Los miserables*. Bi filmak, gaueko 22:00etan izango dira, Atsegindegin.

### Sarrerak, doakoak

Udalak dio sarrerak doan izan arren, alde zuzenetik gonbidapena eskuratu behar dela Biterin. Gainera, babes eta segurtasun neurriak kontutan izango dira, «emanaldi guztiak aukietan

eserita izango dira eta eserlekuen artean distantzia gordeko da». Horrez gain, sarrera eta irteeran maskarila jarri behar da, «bai eta gel desinfektantea» eman ere.

### Leo da Vinci, Monalisa misioa, etzi

Euskaraz izango da ostiralean eskainiko den filma, eta 6 urtetik gorakoentzat da gomen-dagarria. 2018an argitaratu zen, Sergio Manfiok sortutako haur pelikula hau. Bertan, Leonardo da Vinciren mundua asmakizun eta aurkikuntza miragarritz beteta dago, eta amets haundi bat dauka: hegan egitea. Abentura bati ekingo dio lagunekin eta maiteminduta dagoen Lisarekin. Montekristo uhartera helduko da, eta bertan, altxorra dago, itsaso azpian. Bertan

ohartzen dira, oso arriskutsua dela, altxorra lortzeko misioa.

**Los miserables, larunbatean**  
Thriller poliziakoa da larunbatean jarriko den pelikula hau, 2019an argitaratu zen, Ladj Lyren zuzendaritzapean eta helduentzat dela jakinarazi dute. Bertan, Stephane delin-

kuentziaren aurkako borroka brigadarekin bat egin du Paris aldian. Chis eta Gwada, agenteak ezagutuko ditu, auzoaren kontrola eskuartzen saiatzen diren talde antolatuekin etengabeko tentsioan bizi direnak. Talde horretan moral garbia duen bakarra dela ohar-tuko da aipatutako Stephane. Aipatu moduan, emanaldiak doakoak dira, baina Hernaniko Udalak azaldu du, beharrezkoa dela alde zuzenetik gonbidapena eskuratzeari Biterin.

Horrez gain, jakinarazi dute, emanaldi guztiak aukietan eserita izango direla, eta eserlekuen artean distantzia gordeko dela. Gainera, segurtasuna bermatzeko, «sarrera eta irteeran maskarila jarri behar da», bai eta gel desinfektantea eman ere. **K**

**«Bi emanaldiak Atsegindegiko plazan izango dira, gaueko 22:00etan, eta aurrez gonbidapena eskuratu behar da bertaratzeko»**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

· 638 421 060 ·

Hernani - Astigarraga - Donostia

Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**GAUR** Goizaldean zaparrada trumoiatsuren bat bota dezake. Goizean hodeiak eta ostareak tartekatuko dira, baina eguerditik aurrera hodeiak ugaritzen joango dira. **Min.16° / Max.22°**

**BIHAR** Bihar aldarre ilunagoa eta freskoagoa hartuko du aroak. Fronte hotz batek eragingo digu, zerua estalita egongo da eta euria egingo du. **Min.15° / Max.18°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**  
**LAGUNTZAILEAK**  
Hernaniko Udala  
Astigarragako Udala  
Euzko Legebiltzaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
ARANOKO UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**  
Euzko Legebiltzaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Euzko Legebiltzaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Euzko Legebiltzaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia

## EHGAM-en Urrezko Hirukia saria, Kattalin Minerrek

Kattalin Miner idazle eta kazetariak jaso du EHGAM Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Askapenerako Mugimenduaren aurtengo saria.

### HERNANI SARIA

EHGAM Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Askapenerako Mugimenduaren aurtengo Urrezko Hirukia, Kattalin Miner idazle eta kazetariari egokitu zaio. Modu horretan, elkarteak aitorza egin dio, Moio. Gordetza ezinezkoa zen liburua argitaratzeagatik. Izan ere, elkarteok jakinarazi dute «sari horrek aintzat hartzen du aniztasuna ezagutarazteko eta onartzeko lana.

Hori horrela, LGTB memoria-arentzat liburuak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, bai eta haren garrantzia azpimarratu, bai eta haren garrantzi politiko handia nabarmendu gainera, trans pertsonen eta haien eskubideei gupidarik gabe erasotzen ari zaien honetan».

«Aimar Elozegi Ansaren suizidioa hizpide» Kattalin Minerrek idatzitako liburuan Kattalinerren Moio. Gordetza ezinezkoa zen liburua, Hernani

niko Aimar Elozegi Ansa gazte transexualaren suizidioa du hizpide, eta gaztearen bizipenak kontatzen dira bertan.

Gainera, kazetari eta idazleak «herrikidea eta lagun mina» zuen Elozegi, eta haren heriotzak eragindako ezinegona eraginda idatzi zuen narrazioa, «memeria ariketa gisa».

Eta Minerrek azpimarratu du «sozialki ez ginen memoria egiten ari, eta ez hori bakarrik, intuizioa nuen, ez ginela ari transmisioa bermatzen». **K**

## 'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' egitasmoaren balorazioa, gaur

### HERNANI UDALA

Jada egin dira 'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' egitasmoaren lehen ekintzak, eta hau baloratzeko, gaur arratsaldeko 19:00etan bilera egingo da Biteriko kultur etxean. Bertaratzeko deia luzatu du Udalak.

## 'Erosi etxetik irten gabe' biharko hitzaldia

### HERNANI KZGUNEA

Uztailean ere, hainbat hitzaldi eskainiko dira, eta hilabete honetako lehenengoa 18:00etatik 19:00etara eskainiko da 'Erosi etxetik irten gabe' gaia landuz. Gaztelaniazkoa izango da biharko saioa. Datorren hitzaldia, datorren asteartean eskainiko da eta 'Guazen Interneta' izango da landuko den gaia.

## IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna goizez edozer lan egiteko prest! Deitu: **637 30 28 52**

Pisua alokagai Eizabon. 80 m2, erdi amueblatuta, merke alokatzen det. Deitu: **637 30 28 52**

Astigarragako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana. Idatzi: [landepartamendua@gmail.com](mailto:landepartamendua@gmail.com)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

III. urteurrena  
**Mikel Valdivia Vida**  
"Txapete"  
Faltan zaitugu.  
Bizitza besarkatzen jarraituko dugu.  
Zugatik eta gugatik.  
Aitur eta Amagoia

III. URTEURRENA  
**Mikel Valdivia Vida**  
"Txapete"  
Gertu zaudela sentitzen zaitugun arren,  
zure hutsunea izugarria da.  
Zure ispilua den txikitxo bat dugu  
eta horrek indarra ematen digu.  
Beti gure bihotzetan, maite zaitugu!  
**GURASOAK, ARREBA ETA ETXEKOAK**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

III. URTEURRENA  
**Mikel Valdivia Vida**  
"Txapete"  
Egunero ezkututzen da eguzkia itsasaldetik,  
baina zu ez zara aldentzen gure bihotzetatik.  
**MARTIN, PILI, ARITZ, MAITE ETA PERU**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

IX. URTEURRENA  
**DAMIAN CISNEROS COBO**  
Maite zaitugu  
**ETXEKOAK**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**SIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN**  
Atzo hil zen, 62 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
- Goian bego -  
Bere gurasoak: Jose (†) eta Rita (†); anai-arrebak: Jose Manuel, Modesto, Maria Pilar eta Jose Ignacio Irazu, Jose Angel, eta Maria Angeles eta Jesus Sagastume; ilobak: Leire eta Gorka, Iñigo eta Balentina, Jon eta Jaione, Ibai eta Nerea eta Josu; iloba txikia: Enaitz; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean  
Helbidea: Otsua-enea baserria. Osiñaga auzoa 36  
OHARRA: Gorputza VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 16:00ak arte.

**XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN**  
Otsuaneko parajetan azalduko zaigun irrifar zabal, gozo eta maitagarria, bejondeizula SIMON.  
**ETXEBERRIA OSABA-IZEBAK ETA LEHENGUSUAK**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

**XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN**  
Elkarrekin bitu ditugun momentu guztiengatik.  
Gero arte, Ximon  
**ARRIATZUKO FAMILIA**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

**SIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN**  
Bihotzean min dugu, min etsia,  
negar ixila darion mina.  
Lagun bat genuen, Simon,  
gaur, tamalez, aldegin.  
**OSIÑAGAKO AUZO ELKARTEA**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

**XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN**  
Mila esker Ximon, denagatik.  
Zauden tokian zaudela,  
besarkada haundi bat.  
**OLAIZOLA SAGARDOEGIA**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean

**XIMON ETXEBERRIA BELAUNZARAN**  
Alaitasunaren iturritik edan genuen iturritik oroimenean izango zara zu beti gurekin  
**LOIDIKO SENDIA**  
Hernanin, 2020ko uztailearen 1ean